



EBAZPENA, 2019KO UZTAILAREN 26KOA, INGURUMEN-ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIARENA, GASTEIZKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN EGITURAZKO ALDAKETA PUNTUAL BATEN INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMENA ZEHAZTEN DUENA. ALDAKETAREN XEDEA DA LASARTE INGURUKO LEGAR-HOBIEEN LURZORU URBANIZAEZINEAN AZPIEGITURA HIDRAULIKOEN SISTEMA OROKOR BAT ZEHAZTEA ETA MUGATZEA, UHOLDEAK EKIDITE ALDERA ETA TELEKOMUNIKAZIO-AZPIEGITUREN ERABILERA XEHATUAREN ZEHAZTUGABETASUNA ZUZENTZEKO.

AURREKARIAK

2019ko martxoaren 28an, Gasteizko Udalak eskatu zuen hasiera emateko Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko aldaketa puntuala baten ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntari. Aldaketaren xedea zen Lasarte inguruko legar-hobieen lurzoru urbanizaezinean azpiegitura hidraulikoen sistema orokor bat zehaztea eta mugatzea, uholdeak ekidite aldera eta telekomunikazio-azpiegituren erabilera xehatuaren zehaztugabetasuna zuzentzeko. Kontuan hartu behar ziren, horretarako, 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra, eta 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, sektoreko legerian eskatutako dokumentazioa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen baitu, V. eranskinean dakarren formularioa.

2019ko ekainaren 11n, kontsulten-izapidea egin zen, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoa. Hauek dira ingurumen-organoak kontsultatu zituen administrazio publikoak eta interesdunak:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza
- Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, URA-Uraren Euskal Agentziaren bitartez.
- Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritza.
- Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza.
- Iñobe. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. Eusko Jaurlaritza.
- Ekologistak Martxan Araba.
- GADEN, Natura Defendatzeko eta Ikertzeko Arabako Taldea.
- Eguzki. Eguzkizaleak aisialdirako elkarte.
- Hontza Natura Elkarte.
- GAIA talde ekologista.

Bestalde, data horretan bertan, hauek jarri ziren eragindako administrazio publikoen eta interesdunen eskura Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean: planaren zirriborroa, sektoreko legeriak eskatutako dokumentazioa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. eranskineko formularioa. Izan ere, planaren gaineko interesa izan zezakeen oro identifikatu beharra zegoen.

Dagokion legerian ezarritako izapidea amaituta, erantzunak jaso dira Osasun Publikoaren Zuzendaritzatik eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzatik (biak Eusko Jaurlaritzakoak), URAtik eta IHOBetik, eta espedientean dago horien emaitza.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak 10. artikuluan diotenaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, hauxe da ingurumen-ebaluazioaren xedea: ingurumenean ondorio adierazgarriak eragin ditzaketen plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea, ingurumenaren babes-maila handia bermatuta, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Halaber, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrak (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) 42. artikuluan diotenaren arabera, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek egoki bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa, betiere jardueren ondoriozko eragin metagarriak eta sinergikoak kontuan izanik.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako edo onetsitako plan eta programak, bai eta haien aldaketak ere, haien prestaketa eta onespina beharrezkotzat jo badu legezko edo erregelamenduzko xedapen batek, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak baimentzeko etorkizuneko esparrua ezartzen badute eta arlo jakin batzuei erreferentzia egiten badiete, hala nola hiri- eta landa-lurraldearen antolamenduari eta lurzoruaren erabilerari.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ohiko ingurumen-ebaluazioa hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek 18.1 artikuluan xedatzen ditu hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatu egiten du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziazko dokumentuaren edukiari eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte azaldutakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira, eta xedapen hauek guztiak ikusi dira: 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurugiroa Babestekoa; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 77/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondoreetarako bakarrik, Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntual bati, aldaketaren xedea izaki Lasarte inguruko legar-hobien lurzoru urbanizaezinean azpiegitura hidraulikoen sistema orokor bat zehaztea eta mugatzea, uholdeak ekidite aldera eta telekomunikazio-azpiegituren erabilera xehatuaren zehaztugabetasuna zuzentzeko. Hona dokumentuaren nondik norakoa:

1.- Planaren xedea

Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aldaketaren xedea da Plan Orokorraren «Azpiegiturak» sailkapen orokorraren barruan, «Azpiegitura hidraulikoak» sailkapen xehatua zehaztea, eta sistema orokor bat mugatzea sailkapen horrekin, udalerriko lurzoru urbanizaezinean, sailkapen hori «Gasteizko udal-mugartean Batan eta Zapardiel ibaien uholdeen kontrako defentsa egiteko proiektuaren» eremuari aplikatuta.

Halaber, sailkapen orokorraren barruan, «Telekomunikazio-azpiegiturak» sailkapen xehatua zehazten da. Erabilera hori indarrean dagoen Plan Orokorraren 5.03.45 artikuluan dago araututa, baina ez dago horrela jasota «Azpiegiturak» sailkapen orokorrean.

Bi erabileren definizioak, alegia, «Azpiegitura hidraulikoak» eta «Telekomunikazio-azpiegiturak», udal-mugarte osoari eragiten dio.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 53. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, proposatutako aldaketa egiturazkoa da, sistema orokor bat zehazten baitu (modu xehatuan).

Behin «Azpiegitura hidraulikoak» erabilera definituta, era xehatuan mugatu eta antolatzen da sistema orokor bat «Gasteizko udal-mugartean Batan eta Zapardiel ibaien uholdeen kontrako defentsa egiteko



proiektuak» hartutako eremuaren gainean (Digital Ingenieria enpresak idatzi zuen proiektua, Uraren Euskal Agentziarentzat eta Gasteizko Udalarentzat), eta era xehatua antolatzen da eremua.

Aipatutako proiektuaren helburua da uholde-arazoak konpontzea, saneamendu-sistema ez baita gai Batan eta Zapardiel ibaien uraldi-emariak eramateko. Horretarako, uraldiak laminatzeko putzu bat eraiki behar da, 130.551 m³-ko edukierakoa eta 6 hektarea inguruko azalerakoa, eta bertara bideratuko dira Batan eta Zapardiel ibaiak. Horrez gain, 1.089 metroko biltodi bat eraiki behar da, bildutako ura Ehari errekarantz eramateko (Gasteizko hirigunearen hegoaldean).

Aldaketa horiek Plan Orokorraren kartografiara eramango dira, eragindako gunea adierazi eta mugatzeko.

2.- Ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentuaren edukia:

Ingurumen-azterketa estrategikoak gutxieneko eduki hau hartu beharko du barnean: abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak (planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen baitu) II. eranskinean ezarritakoa, aipatu dekretuaren I. eranskinean jasotakoa ere kontuan hartuta.

Eremuaren ezaugarriak eta gauzatu nahi diren jarduketak kontuan izanik, honako gai hauek jasoko dira:

A. Ingurumen-helburu estrategiko eta jasangarritasun-printzipio eta -irizpide aplikagarriak

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planaren Aldaketak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; nagusiki, 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-ildoak hartuko dira Plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Horrez gain, arau hauetan bildutako irizpideak jaso beharko ditu: Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, urriaren 16ko 211/2012 Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute Planaren Aldaketaren ingurumen-ebaluazioa:

- a) Muturreko fenomeno klimatikoen (uholdeak) ondorioak gelditzea, arrisku naturalak minimizatuta.
- b) Habitata eta espezieak, natura-ingurunea eta lotura ekologikoa babestu eta hobetzea, eta arreta berezia jartzea Batasunaren intereseko habitatei (Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora kontserbatzeari buruzkoa).
- c) Paisaia eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- d) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabidearen erabilera jasangarria ere.
- e) Babesa ematea mehatxatutako flora- eta fauna-espezieen lehentasunezko banaketa-eremu, interes bereziko eremu eta gune ahulei (Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legearen 54. artikulua).

- f) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta eragileen nahiz lurzoruaren erabiltzaile potentzialen jarduera indartuta.

Ingurumen-ebaluazio estrategikoak hau ere baloratu beharko du; proposatutako jarduerak nola integratzen dituzten ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasun-irizpideak, aipatu garapen jasangarriko printzipioetatik ondorioztatuak. Horretarako, helburuok betetzeko hartutako neurriak/irizpideak identifikatu beharko ditu.

B. Ingurumen-ebaluazioaren esparru geografikoa

Planaren Aldaketaren aplikazio-eremua Gasteiz hegoaldean kokatzen da, erdigunetik gertu, hirigunearen eta Gasteizko mendien mendi-hegalaren artean, lurzoru urbanizaezinean. Eremuaren ezaugarri nagusia landa-elementuak dira; hiriaren ertzeko ingurunean daude, eta, gehienbat, laborantza intentsiborako erabiltzen dira (zereala, patata eta erremolatxa). Eremutik pasatzen diren ibai-ibilguak (Batan eta Zapardiel ibaiak) ur-bazterreko landarediak osatutako zerrenda estu batek inguratzen ditu. Legar-hobi ohia uraldiak laminatzeko putzu bihurtzeko, 62.957,14 m²-ko azalera esku hartu behar da.

C. Ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremuak

Planaren Aldaketak zuzenean eragiten dion esparrua ez da Natura 2000 sareko naturagune babestua, ezta inbentarioan sartutako gune babestua edo natura interesekoa ere. Batan eta Zapardiel ibaiak 5 km-ra dagoen Zadorra KBEko («Zadorra ibaia/Río zadorra» ES2110010) ibaiadarrak dira.

Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan izan beharko diren zenbait elementu hauteman dira:

- Batan ibaiaren ertzean haltzadiak eta lizardiak daude (Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak; kodea: 91E0*).
- Batan erreka interes bereziko eremua da uhalde-enararentzat. Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan, «kalteberatzat» hartzen da, eta onartutako kudeaketa-plana dauka (22/2000 Foru Dekretua, martxoaren 7ko Diputatuen Kontseiluarena, «Uhalde Enara» -*Riparia riparia*- hegaztia Kudeatzeko Plana onesten duena).
- Eremua katalogatuta dago Arabako lurralde historikoko Lotura Ekologiko eta Paisajistikoaren Estrategian, lotune gisa garrantzitsua delako. Gasteiz inguruan dauden ibaien ertzak eta zuhaitziak ekialdetik mendebaldera lotzen dituen korridore batean dago kokatuta, eta Arabako Foru Aldundiak lotura ekologikoen sarea gainean egindako proposamenean aipatzen den Gasteizko eraztun berde deritzonaren eragin-eremuan sartzen da.
- Jarduketa-eremuan hainbat balizko arkeologia-gune daude: 9-Mendizabalako herrixka, 165-Errota eta 171-Ibarrako San Pedro basiliza. Azken biak proposatutako aldagetaren eragin zuzeneko eremutik kanpo daude.

D. Jarduketak kokatzeko inguru desegokiak

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da, eta haren harrera-gaitasuna, arriskuguneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko aukera eman beharko du. Ingurumen ondorioetarako



garrantzitsuak diren eremuak, ebazpen honetako aurreko apartatuan jasotakoak, eta, zehazki, Batasunaren intereseko habitatak dituzten ibaiertzak, planaren ondoriozko jarduketak hartzeko desegokitzat jotzen dira, haien erabilera aurretik deskribatutako helburuen aurkakoa bailitzateke.

Kontuan hartu beharreko ingurumen-arriskuei dagokienez, honako hauek dira esanguratsuenak:

- Eragina izango du lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten edo dituzten lurzoruen EAEko inbentarioan dagoen lurzati batean (01059-01346 zabortegia). Putzuak hartutako eremuaren inguruan, lurzoruaren kalitatearen ikerketa egin da, eta ingurumen-organoak horren inguruko ebazpen bat egin zuen (2011/04/13). Ondoren, «Gasteizko udal-mugaratean Batan eta Zapardiel ibaien uholdeen kontrako defentsa egiteko proiektuak eragindako ingurunean lurzoruaren kalitatearen ikerketa-lana» egin da. Lurzoruaren kalitatearen arloko deklarazioa beharrezkoa izango da, baldin eta Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 23. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada.
- Lurzatia dagoen eremua akuiferoen kutsadurarekiko zaurgarritasun handikoa da, baita interes hidrogeologikokoa ere. Gainera, Batan ibaiaren ezkeraldea 10, 100 eta 500 urteko uraldien eta lehentasunezko fluxu-eremuaren eraginpean dago.
- Balizko arkeologia-guneak daude: 9-Mendizabalako herrixka (Gasteiz), 165-Errota eta 171-Ibarrako San Pedro baseliza (Gasteiz).

E. Aurretiazko kontsultetako erantzunen ingurumen-azterketa laburra

Jarraian, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulta-izapidean jaso diren txostenetako ingurumen-arloko eduki garrantzitsuenak laburbildu dira:

- Kultura-ondarearen ikuspegitik, «9-Mendizabalako herrixka (Gasteiz)» balizko arkeologia-gunea nabarmentzen da, eragindako eremuaren iparraldeko muturrean kokatuta dagoena. Gainera, eragindako eremuaren inguruetan, balizko arkeologia-gune hauek daude: 165-Errota eta 171-Ibarrako San Pedro baseliza (Gasteiz). Ingurumen-azterketa estrategikoak kontuan izan beharko du gune horiek guztiak daudela, baita horietan zuzenean duen eragina ere.
- Egiaztatu da lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten edo dituzten lurzoruen EAEko inbentarioan dagoen lurzati bat dagoela: 01059-01346 kodeko lurzattia, hainbat eratako hondakinak izan dituena. Lurzoruaren kalitatearen arloko deklarazioa beharrezkoa izango da, baldin eta Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 23. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada.

F. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Ingurumen-azterketa estrategikoak Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako edukia bildu beharko du, eta hori urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak (planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena) II. eranskinean jasotzen duenarekin osatu beharko da.

Aurrekoarekin bat etorritz, garatzen diren atalek honako eskema metodologiko honi erantzun behar diote:

1. Edukia, helburuak eta egokiak diren beste plan eta programa batzuekiko harremanak.
2. Ingurumenaren gaur egungo egoera.
3. Ingurumenean egon daitezkeen ondorio esanguratsuak.
4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak.
5. Aukerak hautatzeko prozesua.
6. Ingurumena zaintzeko programa.
7. Laburpen ez-teknikoa.

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) behean azaltzen diren alderdietan sakondu behar duela, adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

1. Edukia, helburuak eta beste plan eta programa batzuekiko harremanak

Azterketak Planaren Aldaketaren helburu nagusien laburpen bat izango du. Halaber, xehe-xehe deskribatuko dira Planaren Aldaketa garatzearen ondorioz proposatzen diren jarduketa berriak, indarrean dagoen antolamenduari dagokionez.

Plana egitean, Azterketak era espezifikoa justifikatu beharko du nola hartu diren kontuan ingurumena babesteko helburuak eta printzipio eta irizpide jasangarriak, ebazpen honetako 2.A apartatuan jasoak. Justifikazio hori bai arauetan bai Planean bertan ezarritako adierazleen eta mugen erabileran oinarrituko da.

Ingurumen-azterketa estrategikoak hierarkian gorago dauden lurralde- eta sektore-antolamenduaren planekiko bateragarritasunaren analisi bat aurkeztu beharko du. Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan hauek hartuko dira kontuan:

- Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partziala.
- Ebroko Plan Hidrologikoa (2015-2021).
- Ebroko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2015-2021).
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.
- Arabako lurralde historikoko Lotura Ekologiko eta Paisajistikoaren Estrategia.
- Araban uhalde-enara kudeatzeko plana, Arabako Foru Aldundiaren martxoaren 7ko 22/2000 Foru Dekretu bidez onartua.

Halaber, eremuari aplikatu beharreko gainerako planei dagokienez izan daitezkeen bigarren mailako ondorioak eta eragin metagarriak eta sinergikoak identifikatuko dira. Hemen identifikatutako ondorioak, halakorik izanez gero, Planaren Aldaketaren inpaktuak identifikatu eta baloratzeko apartatuan ebaluatuko dira. Helburu komunak lortzea izango da xedea, eta, horrez gain, beste plan batzuen helburuekiko eta jarduketa-ildoekiko gainjartzeak, gatatzak edo bateraezintasunak ager daitezkeen kasuetan Planeko jarduketa-aukerak ebaluatzea.

2. Ingurumenaren gaur egungo egoera

Azterketak ingurumenaren egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak azaldu beharko ditu, eragin nabarmenak jasan ditzaketen guneen ingurumen-ezaugarriak zehaztuta eta Plana aplikatu ezean gune horiek izan dezaketen bilakaera azalduta, klima-aldaketa bera ere kontuan izanik.

Era berean, garrantzitsua izan daitekeen edozein ingurumen-arazo identifikatu behar da; bereziki, ebazpen honen D apartatua identifikatu diren eremuei loturikoak eta ebazpen honetako C apartatua ingurumenaren aldetik nabarmentzat jotako eremu-mugak.

Horrez gain, lurraldearen ingurumen-unitate homogeneousak definituko dira, haien paisaia-ezaugarrien eta natura-baliabideen azterketa integratutik abiatuta.

Lehen aipatutako ingurumen-alderdiak era kartografikoan adierazi beharko dira, Planaren Aldaketa honen izaera espezifikoa heineko eskalan.

Ingurumenaren gaur egungo egoeraren deskribapena ingurumen-adierazleen erabileran bermatu beharko da; horretarako, Ingurumen Esparru Programaren adierazleen oinarritzko panelean jasotakoak erabili ahal izango dira, baita lurraldeari eta ingurumenari buruzko Eustatenak ere, eta ebazpen honetako aurreko apartatuetan adierazitako ingurumen-helburuen bilakaerari buruzko informazio garrantzitsua eman dezaketen beste guztiak.

Aipatutako adierazleei buruzko datuak izan beharko ditu azterketak, eta, halakorik ez badu, alderdi berak adierazten dituzten beste adierazle batzuei buruzkoak; kasu bakoitzean, datu zehatzak lortzeko egon litezkeen zailtasunak justifikatu beharko ditu. Era berean, proposatzen diren beste adierazle batzuei buruzko datuak jaso beharko ditu azterketak, ingurumen-zaintzako programa aplikatzeko erreferentziako ingurumen-egoera zehaztuta gera dadin.

3. Ingurumenean egon daitezkeen eragin esanguratsuak

Apartatu honetan, ingurumenean eragin ditzakeen ondorio esanguratsuak aztertu beharko dira, honako alderdi hauek barnean hartuta: biodibertsitatea, biztanleria, giza osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, kultura-ondarea -ondare historikoa barne-, klima-faktoreak, klima-aldaketan izan dezakeen eragina -bereziki, Planari lotutako karbono-aztarnaren ebaluazio egokia-, ondasun materialak, kultura-ondarea eta paisaia; faktore horien arteko interakzioa ere kontuan izan behar da, eragindako ekosistemek eskaintako ingurumen-zerbitzuak ere ebaluatuta. Eragin horiek barnean hartu behar dituzte zeharkako ondorioak, metaketak, sinergiak, epe labur, ertain eta luzerako eraginak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterakoak, positiboak eta negatiboak.

Azterketak xehe-xehe azalduko ditu Planaren Aldaketa aplikatzearen ondorioz proposatzen diren eta ingurumenean eragin kaltegarriak izan ditzaketen ekintzak, bai Planaren Aldaketaren helburuekin zuzenean lotuta daudenak (uraldiak laminatzeko putzua, hodian trazadura...) bai aldaketa aurrera eramateko ezinbestekoak diren jarduketak; bereziki, linea elektrikoarekin lotutako jarduketak. Horrez gain, aurreikusitako trazadura, bere ezaugarriak (lurpekoa edo airekoa) eta lotuneak zehaztuko dira.

Horrela identifikatutako ekintza bakoitzerako, espero daitezkeen ingurumen-ondorio gertagarriak deskribatuko dira, eta, hala behar denean, ingurumen-ondorio kaltegarri jakin bat gertagaitza dela justifikatu beharko da. Eta, identifikatutako inpaktu guztietatik, berariaz nabarmendu beharko dira garrantzitsutzat hartutakoak.

Planaren Aldaketaren proposamenak kontuan hartuta, *a priori*, esanguratsutzat jo daitezke ebazpen honen C apartatua zehaztuta dauden ingurumen-balioekiko eraginak; bereziki, kontuan izanik Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak (haltzadiak eta lizardiak) nahiz habitat horiekin lotutako fauna mehatxatua dagoela (uhalde-enara edo beste batzuk), eta eremua lotura ekologiko



gisa garrantzitsua dela, Arabako lurralde historikoko Lotura Ekologiko eta Paisajistikoaren Estrategiaren arabera. Era berean, kontuan izan beharko da balizko arkeologia-guneetatik gertu dagoela (9-Mendizabalako herrixka, 165-Errota eta 171-Ibarrako San Pedro baseliza), gune horiei zuzenean kalterik ez eragiteko.

Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei dagokienez, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 23. artikuluko egoeretako bat gertatzen bada, lurzoruaren kalitate-adierazpena izapidetu beharko da. Horregatik, inbentariatutako kokaleku batean edozein esku-hartzeko abian jarri aurretik, lurzoruaren kalitatearen azterketa bat egin beharko da, lurzoruaren kutsadurarekin lotutako arriskurik izango ez dela bermatzeko, ez langileentzat ez ezarritakoarekin bat partzelak izango duen erabilera berriko erabiltzaileentzat, eta hondakinak eta hondeatuko diren lurrak egoki kudeatu beharko dira, indarrean dagoen hondakinen arloko legedia betez.

4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak

Aurreko apartatuan identifikatu diren ondorio esanguratsu bakoitzarentzat, ondoriook prebenitzeko, zuzentzeko edo, hala badagokie, konpentsatzeko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira, eta, behar izanez gero, klima-aldaketan izan dezaketen eragina arintzeko eta horretara egokitu ahal izateko. Ahal den heinean, zehaztuko da proposatutako neurri bakoitza zer garapen-tresnatan ezarriko den.

Horrez gain, ingurumen-azterketa estrategikoak aurreikuspen hau ere identifikatu beharko du: ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartuta dauden proiektuena, Plana etorkizuneko baimenerako marko edo esparru dutenena alegia. Hala badagokio, proiektuak gauzatzean sortutako eraginak gutxitzeko gidalerroak ere ezarriko dira.

Prebentzio- eta zuzentze-neurrien artean, kultura-ondarea eta jabari publiko hidraulikoa babestearekin eta Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean biltzen diren balio estrategiko handiko eremuekin lotutakoak aurreikusiko dira. Horiek zehazteko, ebazpen honen aurreko apartatuetan aipatu diren planetan ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan: Nekazaritza eta Basozaintzako LPS, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeako LPS eta Ebroko Plan Hidrologikoa (2015-2021), bereziki, atal arauemaileko 83. eta 84. artikuluetan ezarritako irizpideak.

5. Alternatibak hautatzeko prozesua

Honako hau bilduko da: alternatibak hautatzeko prozesuaren laburpen arrazoitu bat, bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta ingurumen-arlokoa eta Planaren Aldaketaren helburuekiko bat-etortzea eta proportzionaltasuna justifikatuko dituen, batez ere ebazpen honetako aurreko ataletan jasotako ingurumen-helburuekikoak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartu behar du ezer ez egitearen alternatiba. Bada, aukera horretan, Planaren Aldaketaren eremuak gaur egungo egoeran jarraituko luke (0. alternatiba). Arlo garrantzitsuen eboluzio gertagarriena aztertu beharko da, Planaren Aldaketa ez aplikatzea gertatzen bada edo, hau da, gaur egungo egoeran, proposamenik garatu gabe.

Proposatutako soluzioa justifikatu beharko da, eta jarduketan dimentsioari eta hedadurari ez ezik, aipamena egin beharko die horietako bakoitzerako dauden soluzio tekniko guztiei ere.

Alternatibak baloratzeko prozesu honetan, honako hauek hartuko dira kontuan: baldintza geomorfologikoak, Batasunaren intereseko habitat eta espezieen presentzia, flora eta fauna mehatxatuen guneak eta ondare arkeologikoko elementuak, eta paisaiaren gaineko eragina; alternatibak aukeratzeko prozesu honetan zehatz-mehatz hartu beharko dira kontuan horietako bakoitzak Batasunaren intereseko habitatetan eragin ditzakeen ondorioak, natura-balioko guneak, kutsa daitezkeen lurzoruak eta presuntzio arkeologikoko guneak. Azterketa horretan ebaluazioa egiteko modua deskribatuko da, bai eta aurkitutako zailtasunak ere; esate baterako, eskatutako informazioa biltzean beharbada aurkitu diren gabezia teknikoak, edo ezagutza eta eskarmentu falta.

Atala bukatzeko, hautatutako aukera justifikatu beharko da, eta, nolana ere, bermatu egin beharko da hautatutako aukera teknikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarria dela, eta ingurumenaren ondare- eta ingurumen-osagaiei ahal bezain kalte txikiena eragiteko ahalegina egin beharko da.

6. Ingurumena zaintzeko programa

Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du. Programa horretan, Planaren Aldaketa aplikatzeak ekarriko dituen ondorioak gainbegiratzeko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Ingurumena zaintzeko programan adierazleak deskribatuko dira, eta, behar izanez gero, ondorio esanguratsuenen erreferentzia-baliokak, bai positiboak bai negatiboak.

Ingurumena zaintzeko programak Azterketan proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu, ebazpen honen F.2 apartatua betetzeko, baita datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruzko proposamen zehatz bat ere, kasuetako bakoitzerako.

7. Laburpen ez-teknikoa

Azterketak barnean hartuko du aurreko epigrafeen arabera emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, herritarrek oro har ulertzeko moduko eta aztertutako alderdi guztiak lantzen dituen informazio zehatzarekin, baita informazio grafikoarekin ere, dokumentu autoaskia eta azterketarekiko berarekiko independentea izan dadin.

G. Organo substantiboak kontsultatu beharko dituen eragindako administrazio publikoak eta publiko interesduna identifikatzea

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 22. artikuluan xedatuaren ondorioetarako, ebazpen honetako kontsulten izapidea betetzeko erabilitako zerrenda hartuko da gai honen eraginpeko administrazio publikoen eta interesdunen zerrenda osatzeko. Ingurumen-organoak, ebazpen honetako aurreko apartatuetan aipatu bezala, honako hauei egin die kontsulta:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, URA-Uraren Euskal Agentziaren bitartez.
- Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritza.
- Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza.
- Ihobe. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. Eusko Jaurlaritza.
- Ekologistak Martxan Araba.

- GADEN, Natura Defendatzeko eta Ikertzeko Arabako Taldea.
- Eguzki. «Eguzkizaleak» aisialdirako elkarteak.
- Hontza Natura Elkarteak.
- GAIA talde ekologista.

H. Jendaurreko informazioaren eta kontsulten modalitateak, iraupena eta epeak zehaztea

Organo substantiboak, edo, hala badagokio, sustatzaileak (aztergai dugun honetan biak bat datoz) Plan honen hasierako bertsioa eta ingurumen-azterketa estrategikoa jendaurrean jarriko ditu, gutxienez, 45 egunez. Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan ezarritakoaren arabera, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak kontsultatutako erakundeen iritzia jaso beharko du gutxienez.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 17. artikulua arabera, gehienez ere hamabost hilabeteko epea izango da Azterketa eta arauaren 21. eta 22. artikuluetan aurreikusitako kontsultak egiteko eta informazio publikoaren prozedura betetzeko, irismen-dokumentu hau erakunde sustatzaileari jakinarazten zaion egunetik aurrera.

I. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikulua arabera, kualifikazio profesionaleri eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoa duten pertsonak egingo dute ingurumen-azterketa estrategikoa, zeinak Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango baitu. Ingurumen-azterketa estrategikoa eta haren eranskin guztiek (eragin akustikoari buruzko azterketak, adibidez) pertsona horiek identifikatu beharko dituzte, eta horien tituluak eta, hala badagokio, lanbide arautua adierazi beharko dituzte. Hauek jaso beharko dira identifikazio horren barruan: izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren kodea edo helburu berberak dituen beste dokumentu bat (elkargoko zenbakia adieraziz gero, elkargo profesional zehatz baten erregistroarekin bat egin beharko du). Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Dokumentuaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira horiek, salbu eta Administrazioetik ere frogagarrian jasotako datuei dagokienez. Apartatu monografikoak baditu, apartatu horien arduradunak identifikatu beharko dira.

Dokumentazioa aurkezteko, jarraibide hauek bete beharko dira:

1. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuek behar den koherentzia errespetatu beharko dute, bai haien artean bai aurretik aurkeztutakoekin, halakorik bada; hartara, ez da oztopatuko erabakia hartu behar duten administrazio-organoen lana, baizik eta erraztu egingo da.
2. Arreta berezia jarri beharko da kasu bakoitzean dokumentu teknikoen atalak haien artean erlazionatzea ahalbidetzen duten datuak adieraztean (esaterako, atal batean planeko ekintzak deskribatzen badira eta beste batean ekintza horiek eragindako ingurumen-inpaktuak, bi kasuetan, izen berarekin aipatu beharko dira ekintzak).
3. Beharrezkoa balitz, datuak zein iturritatik lortu diren adierazi behar da.
4. Behar den apartatuetan, planaren, programaren edo proiektuaren dokumentazio grafikoa eta kartografikoa gehitu beharko da (gutxienez, Planaren eremuaren eta aurreikusitako jarduketan informazio kartografikoa aurkeztuko da). Planoak PDF formatuan aurkeztu beharko dira, eta

georreferentziatuta egon beharko dute; hau da, PDFek eremuaren koordinatuak jaso beharko dituzte UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema ofizialean.

5. Anlisi teknikoa behar bezala egin ahal izateko, pantailaratzeko PDF formatuko artxiboez gain, planoen kopia gehigarri bat entregatu beharko da, shape formatuan (UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema erabilia), eta ezingo da 10 Mb baino gehiagokoa izan. Shape fitxategi horretan, honako lau fitxategi hauek txertatuko dira, ZIP bakar batean: .shp, .shx, dbf, .prj.

Lau fitxategiak bilduko dituen «eremua.zip» shape konprimatuaren adibidea:

eremua_adibidea.shp
eremua_adibidea.shx
eremua_adibidea.dbf
eremua_adibidea.prj

6. Plano guztiak kodearekin eta tituluarekin identifikatu behar dira. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den.

7. Jatorrizko eskalatik murriztutako planoak aurkeztuz gero, planoan jatorrian adierazitako eskala zuzendu beharko da, horretan oinarrituta egindako neurketek zalantzarik sor ez dezaten.

8. Testuetan zehar aipatutako eranskin, irudi, plano edo argazki guztiak aurkeztu beharko dira dokumentazioarekin batera. Erreferentzia horiek kasuan kasuko elementua erraz aurkitzeko moduan egingo dira, argi eta garbi.

9. Informazio jakin bat dokumentuko apartaturen baten zuzenketa gisa aurkeztekotan, eta aldi berean espediente zuzendu nahi den apartatua mantentzen bada, informazio berriak adierazi beharko ditu zuzenketaren ondorioz jatorrizko dokumentuan ezeztatutzat edo ordezkaturat jo beharreko kapituluak, orrialdeak, epigrafeak, apartatuak, lerroak, esaldiak, koadroak, irudiak, planoak eta abar. Aurreko informazioaren bat osatzen edo zuzentzen duen informazioak egoera horren berri eman beharko du hasieran. Eskaera bat zuzentzeko aipatutako jarraibideak betetzen ez badira, izapide gehigarri bat eskatu ahal izango da, kontraesaneko edo inkongruenteak izan daitezkeen alderdiak argitzeko, eta horrek atzerapena eragin dezake prozeduraren ebazpenean.

10. Eskaera IKS-eem sistemaren bidez aurkeztu beharko da, aplika daitezkeen eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean eskura daitezkeen fitxak eta inprimakiak erabilia; zehazki, helbide honetan:

<http://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumenari-buruzko-izapide-elektronikoen-gida/web01-a2inguru/eu/>

11. Dokumentu bat .pdf formatuan aurkezten denean, gehienez 30 MB izango ditu, eta bilaketak egitea ahalbidetu beharko du. Dokumentu hardiagokak zatitu egin beharko dira, sisteman sartzeko.

12. Aurkeztutako dokumentazio guztiaren aurkibide osoa txertatuko da, adierazitako apartatuetako bakoitza zein orrialdetan dagoen zehaztuta. Aurkibidea aurkeztean .pdf dokumentu baterako, adierazitako orrialde-zenbakia bat etorriko da orrialde hori aurkitzeko irakurketa-programaren «Joan orrialde honetara» aginduan adierazi behar denarekin.

13. Organo sustatzaileak, datuak igortzean, datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzen duela bermatu beharko du beti.

Bigarrena. Ebazpen hau Gasteizko Udalari komunikatzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 26a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria
Director de Administración Ambiental



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA

IVAN PEDREIRA LANCHAS
MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA